

Ongi etorri Martutenera!

Gida honekin Martutene auzora ongietorria eman nahi dizugu. Donostiako hegoaldean dago auzoa, Urumea ibaiaren ertzean, Txomin Enearen eta Astigarragako udalerraren artean. Martutenek egun 2.700 biztanle inguru ditu. Martuteneko herritarren %48 inguruk daki euskaraz.

Gida honetan auzoan dauden zerbitzu eta baliabideei buruzko informazioa aurkituko duzu, baita bertako bizitza kultural aberatsari buruzko informazioa ere.


Halaber, auzoaren nortasuna ezagutzera gonbidatzen zaitugu, bertako bizilagunekin batera, auzoko gune, elkarte, jarduera edo festa desberdinak ezagutuz.

Gida hau eskura dezakezu euskaraz (Euskal Herriko hizkuntza ofiziala gaztelaniarekin batera), gaztelaniaz ingelesez, frantsesez eta arabieraz.

Aurkibidea

1	Kokapen geografikoa	2	8	Etxebizitza.	7
2	Harrera	3	9	Euskara	7
3	Gizarte Zerbitzuak	3	10	Garraioa.	8
4	Erroldatzea	4	11	Kultura, aisia eta kirola	9
5	Osasuna	4	12	Emakumeen Etxea.	10
6	Hezkuntza	5	13	Elkartek	11
7	Enplegua eta prestakuntza	6	14	Bestelako elkarteak eta intereseko errekurtsioak	12

1 Kokapen geografikoa



2 Harrera



Martutene auzoari buruzko aholkularitza eta informazioa jasotzeko zatoz Sarroeta auzo elkartera. Asteazkenean, 18:00etatik 20:00etara, pertsona batek auzoari buruzko informazioa eman ahal izango dizu.

Sarroeta Auzo-Elkartea

Nuestra Señora del Pilar, 5, 20014 Donostia, Gipuzkoa
678751030 / martuteneauzoa@gmail.com

3 Gizarte Zerbitzuak (Erriberak)



Zein da gure helburua?

Eusko Jaurlaritzak, aldundiek eta udalek osatutako Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemarako sarbidea erraztea. Beren ingurune hurbilean pertsonak eta familiek dituzten gizarte beharrei erantzutea, gizarte-bazterkeriak, babesgabetasunak eta mendekotasunak eragindakoak. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuak izapidetzea.

Nork erabil ditzake Gizarte Zerbitzuguneak?

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari buruzko informazioa, aholkularitza eta orientazioa behar duten Donostiako pertsona eta/edo familia guztiek, gizarte-zerbitzu zuzenen eta espezializatuaren ekintzaren bidez, eta beren autonomia, integrazioa eta gizarte-ongizatea hobetzeko profesional talde baten laguntza eta babesa behar duten pertsonak eta familiek. Senideek, bizilagunek, eskolek, udaltzainek eta beste batzuek norbait babesik gabe edo babes sozialik gabe egon daitekeela hautematen badute.

Parte hartzeko Moduak

- Aurrez aurre (G.Z Erriberak: Nemesio Etzaniz 1-3, 20014 Donostia)
- Telefonoz (943481551)

GIZARTE LARRIALDIETAKO ZERBITZUA (SMUS)

Kale gorrian eta erroldatu gabe dauden pertsonen zuzendua

- Aurrez aurre (SMUS: Easo Kalea, 41)
- Telefonoz (943483849)

4 Errolda



Errolda udalerriko bizilagun guztiak biltzen dituen erregistroa da. Erregistro horrek ohiko bizilekua egiaztatzen du. Horregatik, Donostian bizi den pertsona orok (etxebizitza baten jabea izan edo alokairu-kontratua izan) udal-erroldan erregistratu behar du. Gainera, erroldaren bitartez oinarrizko beste zerbitzu batzuk ere eskuratu ahal izango dituzu, hala nola, osasun-txartela, eskolatzea eta gizarte-laguntzak. Izen ematea doakoa da eta ez da beharrezkoa egoitza baimena izatea.

Zure nazionalitatea Europar Batasunetik kanpokoa bada eta bizileku iraunkorreko baimenik ez baduzu, erroldako inskripzioa berritu beharko duzu bi urtez behin (epea bukatu baino lehenago); bestela, automatikoki emango zaizu baja.

UDALINFO-KO BULEGOAK

EASO, 41* - 09:00-14:00 / 16:00-18:00

* Goizez bakarrik: uztaila, abuztua, Gabonak (abenduak 21, 24 eta 31 eta urtarrilak 5).

MORLANSEKO ROTONDA, 1 - 09:00-14:00

HARROBIETA PLAZA, 17 (Altza) - 09:00-14:00 (Aste Nagusian itxita)

5 Osasuna



Erroldatzen zarenetik, osasun-sistema publikoan artatua izan zaitezke (nahiz eta egoitza-baimenik ez izan). Horretarako, zure etxetik gertuen duzun osasun-zentrorra (zure kasuan Loiolako zentrorra) joan behar duzu, eta bertan zure osasun-txartela eskuratzeko egin beharreko izapideen berri emango dizute. Osasun sare horretaz gain, badira doakoak izan ohi ez diren zentro pribatuak ere. Hitzordua online ere eska dezakezu. ON-LINE eskatzeko ordua

<https://www.osakidetza.euskadi.eus>

Loiolako Osasun Zentroa

Aintzietea Pasealekua 15, 20014 Donostia
943464344 / correo.csloiola@osakidetza.eus

Osasun Larrialdiak:

Larrialdiko mediku-laguntza edozein pertsonaren eskura dago, berdin dio nazionala edo atzerritarra izan, erregularizatuta egon ala ez, haurdun bazaude edota adingabea bazara.

Casa de Socorro

Bengoetxea Kalea 4, 20014 Donostia, Gipuzkoa - 943 440 633

Donostia Ospitalea

Doctor Begiristain Pasealekua 109, 20014 Donostia. (943007072)

Donostia Ospitalean ere jaso ahal izango duzu larrialdiko arreta.

Beste zenbaki interesgarri batzuk:

900203050 telefonoan “osasun-gomendioa” laguntza eskaintzen dute osasun-larrialdietan eguneko 24 orduetan arreta emateko. Larrialdi-zenbakia 112 da.


6 Hezkuntza



Eskolatzea eta hezkuntza sistema publikoak dira. Euskadin, pertsona guztiok dugu doako hezkuntza jasotzeko eskubidea 2 eta 16 urte bitartean, eta derrigorrezko hezkuntza 6 eta 16 urte bitartekoa da.

Atzeritar jatorriko adingabeek, beren administrazio-egoera edozein dela ere, derrigorrezko hezkuntzarako betebeharra eta eskubidea dute. Hezkuntzarako eskubideak beka eta laguntza publikoak eskatzeko aukera jasotzen du.

Hezkuntza Etapak:



Fuente: Departamento de Educación del Gobierno Vasco

ARANTZAZUKO AMA IKASTOLA

HAUR HEZKUNTZA ETA LEHEN HEZKUNTZA (2 eraikin)

HAUR HEZKUNTZA (2, 3 y 4 urte)

Octógono Eraikina. Grupo de Nuestra Señora del Pilar 22
20014 Donostia – Gipuzkoa
943 899614 / 013520aa@hezkuntza.net

HAUR HEZKUNTZA (5 urte) + LEHEN HEZKUNTZA (6-12 urte)

Martutene Pasealekua 48 - 20014 Donostia – Gipuzkoa
943 899614 / 013520aa@hezkuntza.net

ARANTZAZUKO AMA - BHI

BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTOA (12-16 urte)

Martutene Pasealekua 48 - 20014 Donostia – Gipuzkoa
943 899280 / 012960aa@hezkuntza.net
<https://arantzazukoamabhi.hezkuntza.net/es/>

AMPA MARTUTENE (Gurasoen elkartea)

Martutene Pasealekua 48, 20014 Donostia, Gipuzkoa
943470235 / gurasoelkartea@arantzazukoama.com
<https://martugurasoak.eus/>

7 Enplegua eta Prestakuntza



Atzeritarrek bizileku- eta lan-baimena eskuratu behar dute lan egiteko. LANBIDEn, Euskal Enplegu Zerbitzuan, enplegurako prestakuntza ikastaroen eskaintza zabala aurkitu ahal izango da, baita enplegu eta langabezia-eskaerak izapidetu eta doako aholkularitza jaso ere.

Helduen Hezkuntzako Zentroak (HHI) Eusko Jaurlaritzaren mendeko ikastetxe publikoak dira, eta hezkuntza arautua eta arautu gabea eskaintzen diete helduei.

LANBIDE

Marino Tabuyo Kalea, 14, 20013 Donostia, Gipuzkoa
945160600 / direccion.general@lanbide.eus
<https://www.lanbide.euskadi.eus/hasiera/>

CEPA Donostia HHI

Atarizar Kalea, 22, 20013 Donostia, Gipuzkoa
943270010 / 013624aa@hezkuntza.net
<https://cepadonostiahhi.hezkuntza.net/eu/cepa-donostia>

8 Etxebizitza



Etxebide Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitza eskuratzeko aukera kudeatzeaz eta sustatzeaz arduratzen den etxebizitza-zerbitzua da. Hainbat zerbitzu eskaintzen ditu, hala nola, etxebizitza-eskaintzari buruzko informazioa, etxebizitzak erosteko edo alokatzeko aholkularitza, eta etxebizitza eskuratzeko laguntza-programak.

<https://www.etxebide.euskadi.eus/hasiera/>

Etxebizitza bat behar baduzu, bi modu daude hori lortzeko: erostea edo alokatzea. Eskaintza publikoari buruzko informazioa Etxegintza udal-erakundearen bitartez aurki dezakezu. Herritarrek, oro har, webguneetako iragarkien edo ezagunen bidez bilatzen dute etxebizitza. Beste pertsona batzuek higiezin agentzietara jotzen dute. Enpresa horiek pribatuak direnez, dirua kobratu ohi dute egiten dituzten gestioengatik. Gainera, etxebizitza bat eskuratzeko baliabide publikoak daude. Informazio gehiago nahi izanez gero, hona hurbil zaitezke:

Etxegintza

Duque de Mandas Pasealekua, 12, 20012 Donostia, Gipuzkoa
943481765 / etxegintza@donostia.eus
<https://labur.eus/39rznunp>

9 Euskera



Euskara Euskal Herriko berezko hizkuntza da, eta gaztelaniarekin batera, Martutenen hitz egiten diren bi hizkuntza ofizialetako bat.

Euskara hizkuntza ofiziala izateaz gain, gutxitua da, baina euskararen normalizazioan egindako biziberritze-prozesua erreferentea da mundu-mailan.

Auzotarren %48k daki euskaraz. Batzuk etxean jasotzen dute euskara (%26k), beste batzuk eskolaren bidez, eta heldu askok euskaltegien bidez.

Euskara ikasteko motibazio desberdinak daude: gure nortasunaren eta kulturaren ezinbesteko alderdia izatea, lanerako komenigarria, administrazioan lan egiteko beharrezkoa, euskal gizartean integratzeko bide eraginkorra...

Martutenen Euskara Batzorde bat dago auzotarrek osatuta eta helburu nagusia da euskararen erabilera sustatzea.

Hezkuntza arautuan, 2-16 urte artean ikastetxeetan hiru hizkuntza-eredu eskaintzen dira: A, B eta D. Guraso gehienen-gehienek, ordea, D eredia aukeratzen dute seme-alabentzako, Haur Hezkuntzan ikasleen % 85ek eta %78k Lehen Hezkuntzan; izan ere, horixe da euskararen ezagutza ondoen ziurtatzen duen eredia.

Horrez gain, Udalak, ikastetxeen bidez, bereziki etorri berriei euskara ikasten laguntzeko, hainbat programa eskaintzen ditu neguan eta udan (Haurrak udan mintza-jolasean, Aisikasi, Mintzaon...). Ikastetxeetatik kanpo, Oporretan Euskaraz udako udalekuek ere arrakasta handia dute.

Euskaltegiak ere badira, 16 urtetik gorakoentzako euskara ikasi eta hobetzeko zentroak dira. Euskara ikastaroak urte osoan zehar ematen dira. Ikastaro horiek diruz laguntzen ditu Udalak, baita HABEk ere. Hasierako mailak doakoak izan daitezke.

Euskararen inguruko informazioa nahi baduzu jarri harremanetan Udaleko Euskara Zerbitzuarekin.

Euskara zerbitzua (Konstituzio plaza 2, Behea, 20003 Donostia)

Telefonoa: 943 481000 / 943 483750

<https://www.donostiaeuskaraz.eus/euskaraz/hasiera/lang/eu>

10 Garraiobideak



Hirian edo beste udalerrri batzuetan ibiltzeko, hainbat garraiobide erabil ditzakezu. Gainera, MUGI txartela ateraz gero, beherapenak izango dituzu bidaietan (www.mugi.eus):

Dbus:

Linea 26: <https://dbus.eus/es/26-amara-martutene/>

Linea 41: <https://dbus.eus/es/41-gros-egia-martutene/>

LURRALDEBUS:

BU 12 <https://lurraldebus.eus/lineas/result>

Renfe:

<https://www.renfe.com/es/eu/cercanias/cercanias-donostia/lineak>



Martutenek aisialdiaz gozatzeko hainbat kultur baliabide eskaintzen ditu. Baliabide horietako batzuk publikoak eta doakoak dira (Etxarriene, haurtxokoa, gaztelekua), eta beste batzuk pribatuak (MKE).

Gainera, auzoak jai jarduerak antolatzen ditu egun zehatzetan. Informazio gehiago Sarroeta auzo elkartean eskuratu ahal izango duzu. Hauek dira jai nagusiak:

Danborrada (urtarrilak 19-20), Korrika (martxoa/apirila, 2 urtetik behin), M8 (martxoa), Udaberrifest (maiatza/ekaina), San Juanak (ekainak 23), Gazte eguna (uztaila), Gau Beltza (urriak 31), Euskararen eguna (abendua 3), Gabon gaua (abendua 24), Euskaraldia, Bertso Bazkaria.

Aipatutako jai horiez gain, MartuJaiak ere baditugu, Pilarreko jaiekin batera ospatzen direnak. Urriko lehen hamabostaldian izaten dira.

Azkenik, Martutenek bi elkarte gastronomiko ditu: El Pilar eta Txapel Aundi. Azken hau 50eko hamarkadaren erdialdean sortu zen eta bere historian zehar hainbat jarduera garatu ditu. Urumea ibaiaren ertzean dago, eta bere kokapena aprobetxatzea erabaki zuten arrauna praktikatzeko. Bere lorpenik handiena 1962ko Espainiako trainerilla txapelketa irabaztea izan zen.

Etxarriene

El Centro Etxarriene es un equipamiento municipal de encuentro que ofrece diferentes espacios y actividades a los vecinos de Martutene. Puedes encontrar los siguientes programas y servicios: Haurtxoko, cesión de salas, nuevas tecnologías, máquina distribuidora de bolsas compostables...

Etxarriene

Elenategi Kalea, 2, 20014 Donostia, Gipuzkoa
943483366 / haurtxokoa_martutene@donostia.eus

Martuteneko Haurtxokoa 5 eta 11 urte bitarteko haurrentzako aisialdirako udal gunea da, asteartetik larunbatera arratsaldero zabalik dago. Doako espazioa da eta adingabeek jolasteko, ondo pasatzeko eta beste haur batzuk ezagutzeko aukera ematen du. Etxarriene zentroan kokatzen da.

Martuteneko Gaztelekua 12 eta 17 urte bitarteko gazteak aisialdiaz beste modu batean gozatzeko gunea da. Asteartetik larunbatera arratsaldero zabalik dago eta doako espazioa da. Nerabeen topagunea. Kuadrilarekin egoteko edota plan, ekintza eta lagun berriak egiteko lekua.

Gazteleku Martutene

Martutene Pasealekua, 48, 20014 Donostia, Gipuzkoa
943466492 / gaztelekua_martutene@donostia.eus
Instagram: dssgaztelekuak

Kultur Etxea

Donostiak kultur etheen sare bat du hiri osoan zehar. Martutuenetik hurbilen dagoena Loiolako Kultur Etxea da, eta bertan jarduera eskaintza zabala auki dezakezu; besteak beste, ikastaroak (normalean ordainpekoak), liburutegia eta egoteko gunek.

Loiolako Kultur Etxea

Aralar Kalea 17, 20014 Donostia, Gipuzkoa (lu-vie 16:00-20:30)
943454605 / loiolakulturetxea@donostia.eus
<https://www.donostiakultura.eus/eu/>

Kirola

Martutene Kirol Elkarte (MKE) hamar talde federatu baino gehiago dituen klub pribatu bat da, eta bere Futbol Eskola propioa du, non kirol honen praktika irakasten den.

Donostian kiroldegi sare bat dago, eta horietara joan zaitezke kirol ariketak egiteko eta sasoiari mantentzeko. Donostia Kirolak kudeatzen ditu zerbitzu hauek eta horietaz gozatu ahal izateko sarrera baten prezio publikoa ordaindu beharko duzu edota KirolTxartela zerbitzua kontratatu eta bazkide egin zaitezke. Zerbitzu horrek Donostiako edozein gimnasio edo igerilekulara sartzeko aukera ematen dizu.

Donostia Kirola

Anoeta Pasealekua, 18, 20014 Donostia, Gipuzkoa
943481850 / udala_kirolak@donostia.eus
<https://www.donostia.eus/kirola/eu>

12 Donostiako Emakumeen Etxea



Emakumeen Etxea Donostiako erdigunean dago, eta bertan biltzen dira emakumeak informazioa, aholkularitza, prestakuntza eta jarduerak egiteko. Entzuteko, arreta emateko eta ahalduetzeko gunea izango da. Halaber, indarkeria matxistaren aurkako ikuspegi integrala garatzea eta genero-ikuspegitik politikoki eragitea du helburu..

Emakumeen Etxea

Okendo Kalea, 9, 20004 Donostia, Gipuzkoa
943483470 / info@donostiakoemakumeenetxea.com
<https://donostiakoemakumeenetxea.com/index.php>

13 Elkarteak



CÁRITAS (Elikagaien bankua)

Sortzez Garbiaren Parrokia, Martutene Pasealekua, 53W, 20014 Donostia, Gipuzkoa
943455987 / martutenekoparrokia@gmail.com
<https://www.caritasgipuzkoa.org/eu>

HAZI BERRI

Ntra. Sra. Del Pilar, 7, Ezker Behea, 20014 Donostia, Gipuzkoa
617235610 / maitenahia@gmail.com

Bidez Bide elkarte (Tituluaren homologazioa)

Santxo Jakitunaren hiribidea, 17 atzekoa, 20010 Donostia, Gipuzkoa
654051231 / bidezvide@hotmail.com
<https://bidezvide.org/>



Musika eta Dantza eskola

Atotxa Zelaiaren Plaza, 3, 20012
Donostia, Gipuzkoa - 943297830
<https://labur.eus/xvly6en6>

Donostia Kultura

Konstituzio Plaza, 1, 20003 Donostia,
Gipuzkoa - 943481150
<https://www.donostiakultura.eus/eu/>

Donostia Kirola

Anoeta Pasealekua, 18, 20014 Donostia,
Gipuzkoa - 943481850
<https://www.donostia.eus/kirola/eu>

Donostia Sustapena

Camino Kalea, 2, 20004 Donostia,
Gipuzkoa - 943482800
<https://www.fomentosansebastian.eus/eu/>

Dbus

Fernando Sasiain Kalea, 7, 20015
Donostia, Gipuzkoa
943000200 / info@dbus.eus
<https://dbus.eus/>

GUARDIA MUNICIPAL

Morlans biribilgunea, Morlans
pasealekua, 1, 20009 Donostia,
Gipuzkoa
943 481320 / 092 (larrialdiak)
<https://labur.eus/wexjf6e2>

KIUB Kontsumitzailearen Bulegoa

Mandasko Dukearen pasealekua, 12,
20012 Donostia, Gipuzkoa
943483410
<https://labur.eus/johykhxzp>



**DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN**
Kultur Aniztasuna
Diversidad Cultural